

Elgoibar - 1306. zenb.
XXX urtea - 2023-11-17



TOKIKOM

BARREN

Mende erdi Udal Musika Bandan

Pedro Zapata



Eta zu zer nahiago dituzu
koralina-izarak ala franelazkoak?

Etorri Lagunak-era eta
begiratu zein duzun gustukuen.
Neguari aurre egiten lagunduko
dizuen aukera paregabera
topatuko duzu bertan!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



ARAMBURU

Instagram kontua dugu!

@aramburubixidenda jarraitzeko,
eskaneatu QR kode hau:

Gainera, Azaroaren 22an,
asteazkena, pultsera edo
lepoko bezala erabil
daitekeen hau zozkatuko
dugu gure kontuan!

943 742 535



ARAMBURUBIXIDENDA

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan
TONBOLAK izan duen estimazioak
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik
aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Panpinak



Leok'k
musika cd-ak



Ordenagailurako
xaguak



Pitillera



Gorputzerako
kremak



'Nur' liburuak



'Elgoibar koloretan'
mahai-jokoak



Belarritakoak



Marrazkiak



Poltsak

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Alex Segade

Kazetaria

Telebistaren audientziak direla eta



"Zalantzan jartzen dut telebistako audientziak ondo neurtzen diren ala ez"

Beti ari naiz neure buruari galdezka ia telebistan komentatzen dituzten audientzien datuak egiazkoak ote diren edo ez. Telebistaren audientzia audimetroen bidez neurtzen da, zaharkituta dagoen sistema baten bidez. Estatu mailan bost mila inguru audimetro daude, bost mila etxetan banatuta. Telebista erabiltzen den bakoitzean, telebista ikusten ari den pertsonak markatu behar du zer dagoen ikusten, gero estrapolazio bat egiten da eta horrela neurtzen da kate edo programa baten audientzia.

Internet garaia oraindik iritsi ez zenean nahiko fidagarriak izan zitezkeen audimetroen datuak, baita streaming plataformen erabilera hain garatuta ez zegoenean ere. Gaur egun, aldiz, telebistaren erabilera izugarri murriztu da eta ez dago telebista bat etxe guztietan. Ez da etxe guztietan erabiltzen esan nahi dut. Egon daiteke bat, baina ez telebista modu tradizionalen ikusteko, eta bai Netflix eta antzekoak kontsumitzeko. Horregatik zalantzan jartzen dut telebisten audientziak ondo neurtzen diren ala ez. Kostatzen zait imajinatzea oraingo programaren edo telesailen batek hiru milioi ikusleko audientzia izatea. Jendeak orokorrean ez du jada telebista ikusten, beste entretenimendu erak dira nagusi oraingo ekosistema digitalean: Youtube, sare sozialak, streaming plataformak...

Posible da audimetroen estrapolazio horretan aintzat hartzea oraingo kontsumo aldaketa. Benetan ez dakit horrela den ala ez, baina ez dela uste dut. Azken finean, audientziak neurtzeko sistema zaharkituta egoteak telebista kate tradizionalen egiten die mesede egiten. Bertan publizitatea eta iragarkien kontuak garrantzi handia izaten jarraitzen du, noski. Neurketa sistema aldatzeak kalte handia egingo lioke telebista tradizionalari nik uste, audientziak baxuagoak izango zirela pentsatzen dudalako.

4 GUTUNAK

BARENek ez du bere gain hartzen Irtzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Zein ederra den itzulera


Utzidazu kontaktzen ze ederra den itzultzea
bost urteren ondoren Behobian parte hartzea.
Utzidazu kontazzen lehen biok egin genuela,
baina orain gu gaude helmugaren beste aldean.
Utzidazu kontaktzen pozarren gaudela
zu berriz ikustean bizikletaz gozatzeko
Utzidazu kontaktzen ze ederra den zu ikustea.
Utzidazu kontaktzen...

Ze ederra izan den itzulera,
bost urte ondoren bueltatzea,
zure erronka guztiei eustea
ta sufrimendua baretzea.

Utzidazu kontaktzen behin amestu nuela
Oier, zu eta hirurok elkarrekin egitea.
Horretarako hegoak
beharko ditudala.
Ez dugu besterik behar
soilik pozik bizitzea

Ze ederra izan den Itzulera,
bost urte ondoren bueltatzea,
zure erronka guztiei eustea
ta sufrimendua baretzea.

H.C.A.



Ramon Etxaniz Elorza

2023ko azaroaren 13an hil zen, 101 urte zituela
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure irribarre goxoa eta maitasuna betiko gurekin.



Jubilatuen omenezko astea ospatuko dute hilaren 20tik 26ra



Jubilatuen astea ospatuko dute Elgoibarren datorren astean. Astelehenean, *La experiencia no pasa de moda* filma ikusiko dute, kafe eta pastekin lagunduta eta martitzenean txokolate jana eta Gabonetako otarren zozketa egingo dute. Eguaztenean, berriz, Dimas Gil elgoibartarrak sortutako film bat ikusiko dute, Pello Arrietaren azalpenekin lagunduta. Ostegunean bisita gidatua egingo dute, Inma Mugertza geologoarekin, eta zapatuan, sorpresa izango dute Jubilatuen Biltokian. Domekan, berriz, meza. Egitarau zehatza agendan aurkituko duzue. (Argazkia: Dimas Gilek egindako filmako irudia).

Ahalduntzeari buruzko tailerra egingo dute hilaren 25ean Txarridunan



Maria Dominguez eta Teresa Leal coachek ahalduntzeari buruzko tailerra antolatu dute azaroaren 25erako. Norbere barruko bizipenak hausnartuz libreago sentitzeko teknikak azalduko dituzte, modu praktikoan. Txarriduna hotolean izango da, 11:00etan. misendalibre.com/registro-taller-noviembre-2023-creencias/ helbidean eman daiteke izena. Informazio gehiagorako: 665 662 067 / 607 248 954.

Zapata gorriak jarriko dituzte Mendaroko plazan, indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak gogoratzeko



Tratu Onen Aldeko Taldearen ekimenez, zapata gorriak jarriko dituzte Mendaroko Herriko Enparantzan, azaroaren 25ean, indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak gogoratzeko. Zapata pareen ondoan, mezu bana idatziko dute, biktima izan diren emakumeen izen banarekin. 13:00etan izango da ekintza, arratsaldean inguruko herrietan egingo diren mobilizazioetara joan ahal izateko. Elina Chauvet artista mexikarrak sortu zuen estreinakoz instalazio hau ahizparen eraiketa matxista salatze, eta harrezgero han eta hemen errepikatu zein moldatu dute mundu zabalean.

Justizia errestitiboari buruzko 'Las dos caras de la justicia' filma emango dute Mendaron hilaren 26an

Justizia errestitiboaz gogoeta eginarazten duen filma da *Je verrai toujours vos visages*, euskaraz *Justiziaren bi aurpegiak*. Gaztelaniazko bertsoa emango dute Mendaron, San Agustin kulturgunean, hilaren 26an, 18:00etan (doan). Jeanne Herryk zuzendutako filma da eta Frantziako justizia penalean 2014tik indarrean dagoen justizia errestitiboaren praktika da filmeko gaia, profesionalek eta boluntarioek gainbegiratura biktimei eta delitu egileei elkarriketa bitartekotua hasteko aukera ematen dien praktika. Haserrea eta itxaropena, isiltasuna eta hitzak, aliantzak eta desamodioa, kontzientzia eta konfiantza moduko gaiak lantzen dira filmean.

Abenduaren 13ra arte egongo da indarrean Txankakuaren Ginkana

Elgoibarren erosteak saria du izenarekin ginkana hasi du Txankakuak, Elgoibarko merkatarien elkarteak. Eguaztenean jarri zuten martxan eta abenduaren 13ra arte egongo da indarrean. Tarte horretan elkartearen baitako saltokietan kartilla bat izango dute eskura bezeroek eta hura betetzea izango da erronka. Sei saltoki ezberdinetan erosketak egitean emango dizkieten zigiluekin bete beharko dute. Sei zigiluak eskuratutakoan, izen-abizenak eta telefono zenbaki bat gehitu eta merkatari elkarteko saltokiren batean entregatu beharko dute. Zozketa abenduaren 15ean egingo dute eta 5.000 euro banatuko dituzte, erosketa-baleetan, honela zatituta: 1.000 euroko sari bat eta, 200 euroko 20 sari.

Berrehun bat kilo gaztaina banatu dituzte Magosto Egunean



Magosto Eguna ospatu zuten zapatuan Elgoibarren galizarrek. Urtero moduan, Galizako produktuak jarri zituzten salgai Maalako parkean, eta 200 bat kilo gaztaina erre zituzten danbolinean. Bi euroan jarri zituzten pitxarrak saltzen nahi beste ardo edateko, eta pitxarra erosten zuenari gaztainak ematen zizkieten debalde.

Abenduaren 1etik aurrera egongo dira erabilgarri zabor edukiontzi berriak



Debabarrenako Mankomunitatea azaroaren 6an hasi zen edukiontzi lateral berriak jartzen eskualdeko herrietan, horiak eta urdinak, baina abenduaren 1era arte ezin dira horiek erabili. Ordura arte lehengo iglu itxurakoak erabili behar dira. Edukiontzi berrietan argi adierazten da zerbitzuz kanpo daudela, baina Mankomunitateak atzeman du herritarrak dagoeneko edukiontzi hauek erabiltzen hasi direla eta gogorarazi die zerbitzuz kanpo daudela abenduaren 1era arte, eta zehaztu du jendea haietan lagatzen ari den hondakinak ezin izango direla abenduaren 1era arte jaso, zerbitzu berria orduan jarriko dutelako martxan.

Herriko hiru tren geltokiei eusteko ados jar daitezela eskatu diete Udalean ordezkaritza duten hiru alderdiei

Altzolan Geltokia Bai plataformakoek herriko hiru tren geltokiak mantentzearen aldeko adierazpen instituzionala adosteko eskatu diete Elgoibarko Udalean ordezkaritza duten hiru alderdiei. Oharrean nabarmendu dute Altzola Birgaitze Integraleko Eremu izendatua dagoela, eta beraz, hango bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko ekintza-planeari jasotakoa betetzea dagokiela erakundeiei. "Elgoibarko herrigunetik kanpora dagoen auzoa da, Mendaro eta Elgoibar artean kokatuta dagoena eta garraio publikoarekiko mendekotasun handia duena. Trenik gabe, auzotik herrigunera eta herrigunetik auzora iristea zailtzen da, pertsonen joan-etorria gutxitu, auzoa are gehiago isolatu eta auzoaren garapen ekonomiko eta sozialari egiten zaio kalte", jaso dute oharrean. Era berean azpimarratu dute tren geltokia kentzea Euskadi Bultzatu 2050 Hiri Agendan jasotakoaren kontra egitea litzatekeela, bai eta Tren eta tranbia bidezko Trenbideko Euskadi 20-20 Planaren kontra egitea ere. "Auzoa biziberritzeko eta suspertzeko politiken aurka doa geltokia kentzea, trena alternatiba erreala delako".

Santa Ana ermitaren gaiak ikusmina sortu du

Santa Ana ermita berritzeko asmoa agertu du Mendaroko Udalak eta eguaztenean bilera batera deitu zituen herritarrak, eman beharreko hurrengo pausoak adosteko eta gaien interesa izan dezaketenekin batzorde bat eratzeko asmoz. Ikusmina sortu du gaiak herrian, eta bete egin zen udalbatza aretoa. Santa Ana berritzeko borondatea agertu zuen Udalak, eta orain arte emandako pausoak zeintzuk izan ziren azaldu zuen Enez Ezenarro alkateak. 1986az geroztik Donostiako Gotzaindegiarena da ermita, eta ezer egiten hasteko haren baimena behar du Udalak. Ondoren, proiektua idatzi behar da, eta behin hori eginda eta aurrekontua dagoela, obra nola ordaindu aztertu, aldeekin.

Bileran parte hartu zutenen gehiengo handia ermita konpontzearen alde agertu zen, baina finantziazioaren gaiak sortu zuen eztabaidarik, bai eta inmatrikulazioaren gaiak ere. Santa Ana herriarena izan beharko lukeela uste zuenik



izan zen batzarrean, bai eta Elizarena bada hark konpondu beharko lukeela uste zuenik ere. Alde praktikotik jo nahi du, baina, Udalak, eta konpontzeko bidea hasi, hondoa jo aurretik. Eguaztenekoa lehen hartu-eman bat izan zen gaiarekin, baina Udaletik jakinarazi dute informazioa biltzen jarraituko dutela, eta txostena dagoenean deituko dutela hurrengo batzar batera.

Maalako elizan eskura daiteke Milagrosaren egutegia

Milagrosaren egutegia salgai dago hilaren 15az geroztik Elgoibarren. Maalako elizan eskuratu daiteke, astelehenetik barikura, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Era berean, domeka honetatik azaroaren 27a bitartean, ama birjina Milagrosaren aldeko mezak izango dira egunero, 09:00etan, Maalan. Hilaren 25an, 26an eta 27an, arratsalde ere emango dute meza, 17:30ean, errosario santuarekin.

Odol ateratzeak egindo dituzte gaur Mendaron

Gaur arratsaldean egingo dituzte odol ateratzeak Mendaron, ikastolan, 15:00etatik 21:00etara. Odola emateko aurrez ordua eskatu behar da Mendaroko Odol Emailen Elkartekoen telefono zenbakira deituta: 634 073 498.

Aldi baterako hiru lanpostu eskaini ditu Elgoibarko Udalak, Lanbiderekin batera

Funtzio askotariko hiru lanpostu betetzeko deialdia egin du Elgoibarko Udalak, Lanbiderekin lankidetzan. Udaletik jakinarazi dute lanaldi osoko kontratua egingo dietela, lau hilabeteko iraupenarekin. Lanposturako izena eman nahi dutenek Lanbiderekin Elgoibarko egoitzan edo www.lanbide.eus webgunean eman dezakete izena, azaroaren 22a baino lehen. Elgoibar, Mendaro, Soralue, Deba eta Mutrikun erroldatuta egon beharko dira derrigor eskaintza honetara aurkeztu nahi dutenek. Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2023ko dirulaguntzen barruan, Elgoibarko Udalak 82.056 euro jaso ditu guztira.

Lanpostuaren inguruan honako xehetasunak eman dituzte Udaletik. Igeltserotza-lanak egin beharko dituztela eta eraikuntza-obra igeltsero-lanetan esperientzia dutela egiaztatu beharko dutela aurrez, bai eta igeltsoratzako tresnen inguruko ezagutza dutela ere. Besteak beste disko-makina eta mailu-pneumatikoa erabiltzen jakin beharko dute eta kaleko baldosak, galtzadarriak, harriak, asfalto-zulo txikiak eta abar konpontzeko gai direla erakutsi.

Pentsioak 1.080 euroraino osatzeko eskaera Udalaren bidez iristarazi nahi dute Legebiltzarrerara

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren eskaria mozio bidez Elgoibarko Udalaren azaroko osoko bilkuran aztertzeko eta onartzeko bidea egin nahi dute Elgoibarko pentsiodunek. Horretarako Udalean ordezkariak duten hiru alderdiekin hartu-emanetan jartzeko asmoa agertu dute. Gutxieneko soldatak 1.080 eurokoa izan behar duela defendatzen du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (hamalau ordainsaritan), eta hala eskatzen ari zaizkio Espainiako Gobernuari, igotzeko kopurua eta aplikatzeko atzeraeraginez 2023ko urtarriletik hasita, baina hark onartu bitartean, kopuru horretara heltzen ez diren gutxieneko pentsioak osatzeko baliabideak jar ditzatela eskatzen diote Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Gobernuari. Gaur egun, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiari 167.718 pentsiodunek 1.080 eurotik beherako pentsioak dituzte. Elgoibarrera etorrita, 1.310 dira hemen 1.080 euro baino gutxiagoko pentsioa dutenak; pentsiodunen %42,2 hain zuzen ere. [Elgoibarko datuak Gipuzkoako datuen estrapolazio bat dira. Gipuzkoan 81.653 pentsiodunek kobratzen dute 1.080 euro baino gutxiagoko pentsioa].

Horregatik "urgentziazkoa eta justiziazkoa" irizten diote gutxieneko pentsioa 1.080 eurora

arte osatzeko eskaerari, "erakunde publikoek herritarrentzako bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako". "Egungo bizi-kostuaren hazkunde esponontzialaren testuinguruan, gero eta adineko eta pentsiodun gehiagok eteten dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitutakoa lortzeko aukerak, bai eta elikadura osasuntsua eta osasun arreta bermatzeko aukerak ere". Kalkuluak egin dituzte eta gutxieneko pentsioa 1.080 euroan jartzeak pentsiotan dagoen genero-arrakala %7ra murriztea ekarriko lukeela azpimarratu dute, zenbateko horretatik beherako pentsio gehienak emakumeenak direlako. Pentsioak bizi-kostuaren arabera ez eguneratzearen ondorioak nabarmenak direla salatu dute eta datua eman dute: "2011tik 2023ra Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) 641,40 eurotik 1.080 eurora igo da, baina gutxieneko pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez. "Pentsioak soldata geroratuak dira, zalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxieneko pentsioak LGSaren %93,7 izatea eta 2013an %72,5 izatea".

Adineko emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko hitzaldia lotu dute Mendaron gaur zortzirako

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, *Mujeres mayores y violencia de género* izenburuko hitzaldia antolatu du Mendaroko Udalak azaroaren 24rako. Iratxe Herrero Zarate soziologo, gerontologo eta kriminologoak emango du udalbatza aretoan, 19:00etan. Zergatik da ezezaguna adineko andreen aurkako genero-indarkeria? Zer hartu behar dugu kontuan adineko emakumeen aurkako genero indarkeriazko egoerak saihesteko eta horiei arreta emateko? Nola lagun diezaiekegu biktimei egoera horretatik ateratzeko oztopoak gainditzeko? Galdera horiei erantzungo die Herrerok, besteak beste, tartean Emakunderen beka eskuratu duen



azterlanean jasotako ondorioetan oinarrituta. Txosten horren arabera, 65 urtetik gorako lau emakumetatik batek (% 23,4) genero indarkeria jasan du bizitzan zehar, eta % 5,7k jasaten dute gaur egun ere. Horrek esan nahiko luke adineko 67.559 emakumek genero indarkeria jasan dutela noizbait, eta 16.456 inguru jasaten ari direla.

Dozena bat kontzertuk girotuko dute Aizu! ostalarien elkartearen aste gastronomikoa

Atzo hasi zuen Aizu! Elgoibarko ostalarien elkarteak aste gastronomiko mikologikoa deitu duena. Hiru eguneko jaia antolatu dute, gastronomia eta musika batzen dituen. Atzo iluntzean, perretxikoekin egindako mokaduak saldu zituzten Aizu! elkarteko kide diren herriko taberna eta jatetxeetan, bi orduz, eta erosketa bonoak ere zozkatu zituzten establezimendu horietan.

Gaurko, berriz, *Erritmoaren ibilbidea* ekimena antolatu dute. Asmoa zera da: 19:00etatik gauerdia arte estilo ezberdinetako musika elektronikoa eramatea herriko bederatzigunetara. 19:00etatik 21:00etara bitarteko lehen txandarako, bost saio lotu dituzte: Imanol & Jainaz (House/Breaks eta Minimal Tech) Kalegoen plazan, DJ Mari (Remember) Kalebarrenen, Marmot & Glock (Electro House) Kalebarren plazan, Otermin (Minimal House) San Frantzisko kalean eta Vicario, Roke (Acid House) Ermuaranbide kalean. 22:00etatik 24:00etara bitarteko lau saioak, berriz, honako hauek izango dira: KRPI (Electro Techno) Pedro Migel Urruzuno kalean, Glock & Marmot (Electro House) Urazandin, J (Techno melodikoa) Maalako parkean eta Artetxe (Minimal) Toletxe kalean.

Ez da gaur amaituko, baina, jaia. Izan ere, Niala mago elgoibartarraren saioa eta Rockalean taldearen emanaldia iragarri dituzte biharko.



Eguerditik 15:00ak aldera arte, tabernaz taberna arituko da Niala magoa, magia-jokoak eginez. Eta arratsaldean, Rockaleanekoak ibiliko dira kalez kale. Ezagunak dira Rockalean taldekoak Elgoibarren. Azken urteetan Txiki Egunean etorri izan dira eta giro aparta sortu izan dute. Musika munduan denbora luzea daramaten bost musikaririk sortutako taldea da Rockalean eta rocka egiten dute, baina kalean. Berezia da taldea bera ere: bi lagun aritzen dira bateria jotzen, beste bat gitarrarekin, laugarren bat soussaphonearekin eta bosgarrena kantuan. Rockaleanekoek amaitu ondoren, gauean, 23:00etatik aurrera, Euskalrock taldekoek kontzertua emango dute Maalan. Barricada, Rip edota Kortatu musika taldeen bertsioak jotzen dituzte, besteak bestea.



Boluntarioak behar dituzte janaria biltzeko kanpainarako

Azaroaren 24an eta 25ean egingo du udazkeneko kanpaina Gipuzkoako Elikagaien Bankuak eta Gurutze Gorriak eta Elgoibarko Udalak dei egin diete herritarrei bilketan laguntzera. Boluntario izateko prest daudenek lehenbailehen eman behar dute izena 943 741 050 telefonora deituta edo Herritarren Arretarako Zerbitzura joanda (Santa Ana 2, behea). Izena emandakoen arabera osatuko dituzte txandak.

PEDRO ZAPATA

Musika Bandako kidea

✍ Ainhoa Andonegi

📍 Asier Orbea

50 urte egin ditu Pedro Zapatak (1956, Jaen, Espainia) Elgoibarko Udal Musika Bandan, eta berez berezia izaten den Santa Zezilia Eguneko kontzertua, are bereziagoa izango da aurten berarentzat. 7 urte zituela hasi zen musika ikasten, eta ordutik, bere bizitzaren parte garrantzitsuenetarikoa da musika. Aita musikaria zuen, eta hark sartu zuen musika eskolan bere herrian, Villacarrillon. Solfeoko irakasleak esan zion herriko musika bandarako jendea behar zutela, eta klarinetea jotzen ikasteko. Pare bat urtez jaso zituen solfeo eta klarinete eskolak, eta bere herriko bandan jotzen hasi zen. 16 urte zituela iritsi zen Elgoibarrera, eta berehala sartu zen txarangan eta musika bandan. Musikaren transmisioak ez du etenik izan Zapata familian, eta Pedroren hiru seme-alabak ere musikariak dira.



“Ohore bat da niretzat hainbeste urtez musika bandako kidea izatea”

Nondik datorkizu musikarako zaletasuna?

Aita musikaria nuen. Klarinetea eta perkusioa jotzen zituen, eta herriko musika bandako kidea ere bazen. 7 urte bete nituenean solfeo ikasi behar nuela esan zidan, egun batetik bestera. Nik ez nekien solfoea zer zen ere, baina

aitaren esanari ezin ba ezetzik esan! Solfeoko irakasleak klarinete eskolak ere ematen zituen, eta bera zen bandako zuzendaria ere. Hortaz, bandaren beharren arabera esaten zion ume bakoitzari zein instrumentu jo behar zuen. Niri klarinetea jo behar nuela esan zidan. Gaur egun

instrumentua aukeratu aurretik instrumentu desberdinak probatzeko aukera izaten dute uimek, baina nik ez nuen horrelakorik eduki. 8 urterekin eman zidaten klarinetea lehenengo aldiz, eta 9 urterekin hasi nintzen banda gaztean jotzen. Herriz herri hasi ginen jotzen, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Hasieran solfeoa ikastea astuna egiten da, baina kontzertuak ematea oso polita da.

Nola iritsi zinen Elgoibarrera?

Lanbide Heziketako ikasketak bukatu nituenean hartu nuen Elgoibarrerako bidea. Tornurako ikasketak egin nituen, eta konturatu nintzen nire herrian ez zegoela sektore horretan lanik. Nire osaba Elgoibarren bizi zen ordurako, nire aitaren anaia, eta hari esan nion ea enpresaren bat aurkituko zidan, praktikak egiteko edo ofizioa ikasteko. Handik egun gutxira deitu zidan osabak, enpresa batean montajerako gazte baten bila ari zirela esanez. 16 urte nituen iritsi nintzenean. Uztaila zen, eta nire asmoa udan lan egin eta berri etxera itzultzea zen, ikasten jarraitzeko beka bat eman zidatelako. Baina enpresak irailetik aurrera lan-kontratua eskaini zidan, eta hemen geratzea erabaki nuen. Gurasoak ez ziren nitaz fidatzen, eta bila etorri zitzaizkidan bekaren papelak eskuan hartuta, baina nik oso argi neukan lanean hasi nahi nuela. Bekari nik neuk uko egin behar niola esan zidan aitak. Telefonoz deitu nion idazkariari eta hark ere joateko esaten zidan, baina gogor eutsi nion erabakiari. Mekako idazkariaren bitartez egin nion uko bekari, eta lanean hasi nintzen.

Eta, nola sartu zinen Elgoibarko Udal Musika Bandan?

Elgoibarrera iritsi eta astebetara sartu nintzen bandan. Uztailaren 11n etorri nintzen, eta uztailaren 25ean eman nuen lehenengo kontzertua bandarekin. Osabak herria ezagutzera eramanez ninduen eta Juan Motarekin topo egin genuen. Mota gure herrikoa zen, nire aitaren laguna, eta bandako kidea. Nire aita ere garai batean hemen ibili zen lanean, baina gero itzuli egin zen. Mota hemen geratu zen, San Pedroko fabrikari. Nik ez nuen ezagutzen, baina osabarekin nindoala egin genuen topo eta aitari buruz galdetu zidan. Galdetu zidan ea ni ere aita moduan musikaria nintzen, eta baietz

*"50 urte egin ditut bandan,
baina oso gustura nago eta
momentuz ez daukat
erretiroa hartzeko asmorik"*

erantzun nion, klarinetea jotzen nuela. Bandan joko ote nuen galdetu zidan, jendea behar zutelako eta baietz erantzun nion. Garai hartan jende asko etortzen zen hona lanera kanpotik. Autopista egiten ari ziren orduan, eta lanak Elgoibarren ziren bitartean, musikariak zirenek bandan jotzen zuten, baina autopistarekin batera lekualdatzen ziren langileak, eta musikariak etengabeko joan-etorria egoten zen bandan. Musikari finkoak behar zituzten bandan eta probatzera joateko esan zidaten. Entsegu batera joan nintzen, eta gaur arte.

50 urte pasatu dira. Erraz esaten da, baina badira urteak.

Bai, niretzako ohore bat da hainbeste urtez musika bandako kidea izatea. Oso erraza izan da honaino iristea. Bandako jendea oso jatorra da, jende ona da, eta oso ondo konpontzen gara. Lau zuzendari ezagutu ditut nire ibilbidean: Jose Zubiaurre *Balle*, Jose Antonio Osoro *Katxo*, Txomin Mujika, eta orain, Gorka Mujika. Denekin primeran moldatu izan naiz, eta oso gustura nago bandan. 50 urte bete ditut, baina momentuz ez daukat erretiroa hartzeko asmorik. Oso gustura nago, eta ahal dudan bitartean bandan segitzeko asmoa daukat.

Mauxitxa txarangan ere ibili zinen, saxofoia jotzen.

Bai, 1976tik 2000. urtera arte ibili nintzen txarangan. 2000. urtean esan nion Mauxitxari ez neukala jada txarangan jotzeko adinik, eta laga egingo nuela. 24 urte egin nituen txarangan, eta 25. urteurrena bete arte geratzeko eskatu zidan Mauxitxak, baina ezetz esan nion. Ordurako jende gazte pila bat ari zen txarangan jotzen, eta nik 44 urte nituen! Txaranga gehiago da parranda girorako, eta iruditu zitzaidan lagatzeko unea iritsi zitzaidala. 1976an klarinetea jotzen hasi nintzen

txarangan. 77-78 urteetan soldaduska egitea tokatu zitzaidan, Jakan (Aragoi, Espainia), eta han ikasi nuen saxofoia jotzen. Zereginak banatzerakoan bakoitzak zer egiten genekien galdetzen ziguten. Han zegoen beterano batek esan zidan ez esateko mekanikaria nintzela, bestela, soldaduska guztia auto azpian pasatu beharko nuela kapitain, teniente edo sargento guztien autoak konpontzen, eta ez zela oso atsegina izango. Musika atala ere bazegoela ikusi nuen, eta musikaria nintzela esan nuen. Klarineta jotzen nuela esan nien, eta atera zuten armairu zahar batetik klarineta zahar bat. Eskala bat jotzeko eskatu zidaten, eta balekotzat eman zuten. Bilboko tipo batek ere esan zuen musikaria zela; baxua jotzen zuela. Ekarri zioten bandako baxua, eta ezetz, berak baxua baina gitarra estilokoa jotzen zuela. Errieta egin eta bidali egin zuten! Militarrek ez ziren txantxetan ibiltzen. Azkenean, baina, deitu egin zioten hari ere. Bonboa jotzeko jendea behar zuten eta pentsatu zuten musikaz jakinda, bonboaren erritmora jotzeko gai izango zela eta azkenean bandan sartu zen bilbotarra ere. Militarrek etxera joaten zirenean, han uzten zituzten instrumentuak, eta han zebilen sargento jator bati galdetu nion ea saxofoia jotzeko baimena ematen zidan. Liburuxka bat ekarri zidan eta nire kabuz ikasi nuen. Klarineta jotzen jakinda, erraza da saxofoia ikastea. Soldaduskatik itzuli nintzenean saxofoia jotzen hasi nintzen txarangan.

Zer da zuretzako musika?

Sentimendu bat da, bizitzeko modu bat. Niri asko eman dit musikak. Aste oso lanean eman ondoren, entseguetara joan eta kontzertuak ematea niretzako gozamina da, deskonektatzeko modu bat. Zaletasuna da; bestela nire lana daukat, baina nire bizitzako parte inportantea da, dudarik gabe. Ordu asko eskaini dizkiot, baina sekula ez zait astuna egin; guztiz kontrakoa. Gustura egoten naiz instrumentua jotzen. 67 urte daukat eta oraindik lanean ari naiz. Enpresa propioa daukat, eta espero dut laster jubilatuta ahal izatea, baina erreleboa lotu beharra dago. Seme batek nirekin egiten du lan, baina nire makinan lan egiteko beste gazte bat formatzen ari gara orain. Beste batentzat lan egiten zuten lagun

*"Aurtengo Queen Gaua
sekulakoa izan da, eta datorren
urterako prestatzen ari gara ere
ez da gutxiago izango"*

gehienak jubilatuta daude, baina ni oraindik ez. Gustura egiten dut lan, lana gustatzen zaidalako, eta osasun aldetik ondo sentitzen naiz. Baina lan kontuak apur bat ahazteko musikak asko laguntzen dit. Instrumentua jotzen dudanean horretan zentratzen naiz; burua melodiari eskaintzen diot eta ez dut beste ezertan pentsatzen. Bi pisuko garajea daukagu, eta goiko aldea entseguetarako prestatuta daukagu. Nire semea ere han ibiltzen da, bere grabazioak egiten. Itziarren Semeak musika taldean jotzen du, eta etxeko grabazioak bidaltzen dizkie taldekideei.

Elgoibarren musikarako zaletasun handia dago. Zer sentitzen duzu kontzertuak ematerakoan?

Antzokia edo plaza jendez gainezka ikustea izugarria da. Aurtengo *Queen gaua* sekulakoa izan zen, eta datorren urterako prestatzen ari gara ere ez da gutxiago izango. Elgoibar herri musikaria da eta musikarako zaletasun handia dago. Zaletasunaz gain, talentua ere badago, eta oso musikari onak daude. Aurten Santa Zezilia Eguneako kontzertua zapatuan emango dugu eta berezia izango da. Niretzako, musikari moduan, Santa Zezilia Eguna izaten da urteko onena. Eguraldiak laguntzen badu, goizean kalejira egiten dugu, gero kontzertua eman eta horren ostean denok batera joaten gara bazkaltzera. San Bartolome Eguna ere gustatzen zait, eta Herriko Antzokian ematen ditugun hileroko kontzertuetan ere asko gozatzen dut. Txomin Mujikak egiten dituen aurkezpenak sekulakoak dira, eta publikoak poltsikoan sartzen du beti. Artista bat da. Gaztetan erromerietan ere jotzen nuen musika talde batekin, eta tokatu izan zitzaidan lau katuren aurrean jotzea. Hori bai zela triste! Beraiek "beste bat" eskatzen zuten, baina hain jende gutxiren aurrean jotzea asko kostatzen zitzaidan.

FAMILIA MUSIKARIA



Ramon Zapata zuen aita Pedrok, eta hura ere musikaria zen. Klarineta jotzen zuen lehenik, eta gerora, perkusioa ere bai. Villacarrillo (Jaen, Espainia) herriko bandako kidea zen, baina 60ko hamarkadan Udal Gastuak murriztu behar zirela erabaki zuen Francok dekretuz, eta Villacarrilloko musika banda desegin egin zen. "Ez zuten asko kobratzen, baina gizarte segurantz an aseguruia zeukaten eta Udalarentzat gastua zen", gogoratu du Pedrok. Une hartan gazteen banda sortu zuten, eta han hasi zen Pedro Zapata klarineta jotzen. 16 urte zituela iritsi zen Elgoibarrera, eta aitaren ezagun baten bitartez ezagutu zuen Jose Zubiaurre *Balle*, ordu hartan Elgoibarko Udal Musika Bandako zuzendaria zena. Musikariak behar zituzten, eta Pedro Zapata taldean sartu zen. 50 urte pasatu dira ordutik.

Aitarengandik jaso zuen berak musikarako zaletasuna, eta berak ere seme-alabei zaletasun bera transmititu die. Hiru seme-

alaba ditu, eta hirurak musikariak dira. Ainhoa da zaharrena, eta akordeoia jotzen du. "Instrumentuak probatu zituenean esan zigun Ainhoak soinua jo nahi zuela. Erretxindin bizi gara eta esan nion 25 kiloko soinua gora eta behera ibiltzea ez zela erraza izango, baina alaba burugogorra da, eta argi esan zigun akordeoia izan ezean, ez zuela besterik joko". Ivanek eta Ikerrek klarineta aukeratu zuten, aitak bezala eta Elgoibarko Udal Musika Bandan jotzen dute biek aitarekin. Ivanek saxofoia ere jotzen du txarangan eta Itziarren Semeak musika taldean. Bandan klarineta jotzen du, txarangan saxofoi altua eta Itziarren Semeak taldean saxofoi tenorea. Zapatatarrenean oso presente dago musika, eta ama ere ezin zen soinu banda horretatik kanpora geratu. Danborradako kidea da Paqui Ferrero. Ezbairik gabe, familia musikaria osatzen dute.



Astelehenean zabalduko dute ludoteka berria, Bolatokiko parkean

16 urtez Gabriel Kurutzelaegi kalean egon ondoren, Bolatokiko parkera aldatuko dute Elgoibarko Udal Ludoteka. Hainbat hilabetez obrak etenda egon ostean, maiatzean ekin zioten berriro ludoteka berria eraikitzeko lanari, eta dagoeneko prest dute. Azken ukituak egiten ari dira aste honetan, eta astelehenean, azaroaren 20an, inauguratuko dute, Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunean. Festa giroan zabalduko ditu atek ludoteka berriak, 17:00etan: musika egongo da, bai eta umeentzako jolasak eta luntxa ere.

Elgoibarko Udalak 2007ko urrian zabaldu zituen Udal Ludoteka eta Gaztelekua Gabriel Kurutzelaegi kalean, eta hantxe egin dute hasierako ibilbidea. Umeen eguneroko jarduerak kontuan hartuta, hala ere, herriaren dinamika ikusita, konturatu ziren arduradunak hura ez zela kokalekurik egokiena, bereziki ludotekarentzat, eta herrigunera aldatzeko aukera berrien bila hasi ziren. Bolatokiko parkera ekartzeko aukera ikusi zuen Udalak, eta lanari ekin zion. Bidean arazoak izan zituzten esleipena irabazi zuen enpresarekin, eta bigarren esleipen bat egin behar izan zuen Udalak. Goki Erreformak enpresak irabazi zuen azken lehiaketa publikoa, eta berak amaitu ditu lanak.

Dena prest dute, beraz, astelehenean zabaltzeko. 180 metro koadroko lokala

da, sukaldearekin eta umeen aisialdirako beharrezkoak diren prestazio guztiekin. Maialen Aranguren Gazteria Saileko teknikaria "pozik" dago kokaleku berri honekin eta uste du herriak asko irabaziko duela. "Aita Agirre inguruan ibiltzen dira ume asko; musika eskola ere bertan dago eta aurrerantzean esku-eskura izango dute ludoteka ere". Ludoteka berria umeentzako erreferentea izatea nahi dute. Libre izango da sartzea eta umeei aisialdi hezitzailea eskainiko diete bertan, horretarako prestatuta dauden hezitzaileek lagunduta. Herrigunean egoteak umeak ludotekara eramatea erraztuko duela uste du Arangurennek.

Martitzenetik zapatura egoten da zabalik ludoteka. Martitzenetik eguenera, 16:30etik

19:30era, eta bariku eta zapatuetan, 16:30etik 20:30era. 5 eta 12 urte bitarteko umeei ematen diete zerbitzua, eta adin tarte bakoitzak berarentzako egunak ditu: HH5etik LH3ra arteko umeak martitzenetik eguenera joan daitezke, eta LH4tik LH6ra artekoak, berriz, bariku eta zapatuetan. Umeak bakarka zein taldean joan daitezke ludotekara, eta aisialdiaz gozatzeko ekintzak izango dituzte bertan. Batzuetan jolas librean jardungo dira, eta beste batzuetan antolatutako ekintzak izango dituzte: "Umeei modu desberdinetan harremantzeko aukera eskaini nahi diegu, bai hezitzaileekin eta baita euren artean ere. Ikastetxe desberdinetako umeak elkartzea ere oso aberasgarria da".



Doako zerbitzua


Hasieran bazkietza kuota bat kobratzen zuten, baina arduradunak konturatu ziren hori familia askorentzat oztopo zela eta beste lehentasun batzuk zituztela. Hortaz, Udal Ludotekak eta aurrerantzean zerbitzua doan emango du. "Eguneroko erabilera doakoa da, baina tarteka, ordaindu egin beharko da ekintzaren bat edo beste". Ludotekako erabiltzaile izateko fitxa bat betetzearekin nahikoa da, beraz.



Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna

Azaroaren 20a Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna da, eta egun horrekin lotu dute ludotekaren irekiera, umeek aisialdirako duten eskubideekin bat egiten duelako. "Eskubide hori bermatu nahi dugu, ume guztiak aukera izan dezaten aisia hezitzaileaz gozatzeko, hezitzaile erreferenteekin, herrigunean eta doan". Ludoteka herriko aisialdiaren erreferente izatea nahi dute arduradunek. "Umeak jarri ditugu proiektuaren erdigunean, beraiek direlako garrantzitsuenak".

Inaugurazio ekitaldia "xumea eta berezia" izango da. 17:00etan hasiko da, DJ Kaktusen emanaldiarekin, eta 18:00etan inaugurazio ofiziala egingo dute. Segidan ludoteka bisitatzeko aukera izango dute familiek eta luntxa egongo da. Asteartean berriz, Treba Gurasoak egitasmoaren barruan seme-alabekin komunikazioa lantzeari buruzko hitzaldia emango du Leyre Canok.



IZASKUN ANDONEGI

Bidegineko zuzendaria

✍️ Ainara Argoitia / 🎤 DV

Psikoterapeuta eta zainketa aringarrietan espezialdutako erizaina da Izaskun Andonegi Goikoetxea eta hogeitertietatik gora daramatza dolu prozesuetan laguntzen. Asmo horrekin sortu zuen Bidegin ere, gaixotasun larri aurreratuak dituztenei edota dolu osasuntsua egiteko laguntza behar dutenei laguntzeko zerbitzua eskaintzen duen elkarte. Gaur egun, Bidegin elkarteko presidentea da, doluari buruzko prestakuntza-saioak eta hitzaldiak ematen ditu, eta astelehenean Elgoibarren izango da, suizidioaz hizketan, Almaur elkarteak gonbidatuta. Kultur Etxean emango du hitzaldia (18:30) eta interesa dutenei izena emateko eskatu dieite Almaurretik. Izena emateko: 627 117 819.

'Suizidioaz hitz egiteak biziak salba ditzake'. Nola heldu, baina, gaiari? Horra betiko zalantza.

Bai, suizidioaz taburik gabe hitz egitea oso da lagungarri, eta ezer baino lehen, hori azpimarratzea dagokigu. Jakina zaila dela, eta ez bakarrik norbaitek bere buruaz beste egin duenean edo saiatu denean, baita burutazio arinena izan duenean ere. Datuek esaten dute pertsonon erdiak inguruk izango dugula bizitzako unerik batean halako burutazioen bat, sufrimendua aldiro agertuko zaigulako eta buruak gehiago ezin duela pentsatzen duenean ohikoa delako bizitza amaitu nahi izatea. Ausardiaz jokatu behar dugu eta garbi hitz egin suizidioaz, prebentziorako ezinbestekoa delako hori. Arlo honetan lanean ari garenok ikusten dugu gero eta gazteagoak ari direla beren burua autolesionatzen, eta adituak esaten ari zaizkigu Lehen Hezkuntzako azkeneko ziklotik bertatik hasi beharko genukeela gaia lantzen.

Suizidioaren inguruan badira uste batzuk oso zabalduak daudenak. Zer dute egitik?

Bai, badaude mito edo uste oker batzuk oso zabalduak daudenak, eta baztertu beharko genituzkeenak. Uste zabalduenetako bat izan daiteke suizidioaz publikoki hitz egiteak



“Beste heriotzetan ez bezala epaitzen du gizarteak suizidio kasuetan. Hori aldatu behar da”

ezbaian dagoen pertsona bat bere buruaz beste egitera bultzatzen duela, baina hori ez da egia. Zentzugabea da hori pentsatzea. Baina badaude gero beste uste edo epai batzuk ere min handia egiten dutenak. Suizidatu dena ausarta edo koldarra izan den eztabaida, atentzioa deitzeko modu bat ote den... Eta kontuz, suizidatzeko tentatuta dagoena hein batean badagoelako arreta

deitu nahian, jasanezina zaiolako sufrimendua, baina mito edo epai horiek ekartzen dutena da sufritzen ari den pertsona are gehiago isolatzea bere bakardadean.

Sufritzen du suizidatzeko tentatua dagoenak eta sufritzen dute ingurukoek. Eta kulpa sentsazioa ere bi aldeetan suma daiteke. Nola lagundu dakioke alde batean zein bestean dagoenari?

Sufrimendua, eta handia, bi aldeetan dago, bai. Oraintxe bertan egon naiz semeak suizidatzeko asmo sendoa duen ama batekin. Bizi ere ez da ama. Dena probatu du, ate guztiak jo ditu eta ez daki zer egin. Ama-semeez gain, baina, haien inguruko sistema osoa ari da sufritzen, mutil hori jende askorentzat delako garrantzitsua, berak uste ez arren une honetan. Bukle horretatik irteteko lan handiena norberak egin behar du. Beti esaten da badaudela suizidioaren arrisku faktoreak, hala nola, gertaera edo bizipen traumatiko bat izatea, bakardadea, estresa., baina nork ez du halakorik bizi bizitzako uneren batean? Sufrimendua hor daukagu eta hori ezin dugu gure eskemetatik kendu, baina landu dezakegu sufrimenduaren aurrean dugun jarrera.

Zaintzailea zaindu beharraz aritzen gara askotan, norbera ondo egotea ezinbestekoa delako beste norbait zaintzeko. Nola lagundu diezaiokegu amari, inguruari?

Bizkarra sendo eta bihotza zabalik izan behar ditu ama horrek, tokatu zaionari ausardiaz heltzeko, eta sare bat bilatu behar du inguruan, laguntzeko. Egon behar duen lekuan egoteko ausardia hori izan dezan, pentsatu behar du ezinbestean bere ainguretan, euskarri izan dakizkiokeen gauzetan, suizidatzeko asmoa adierazi duen pertsonak egoeraren aurrean izutuko ez den laguna behar duelako ondoan. Eta hori, jakina, oso zaila da lortzen, are gehiago suizidatzeko asmoa agertu duen pertsona maite dugun norbait denean. Halakoetan oso zaila egiten zaigu gertukoari benetan suizidatzeko burutaziorik izan duen galdetzea, baina nire esperientziatik esango dizut oso garrantzitsua dela galdera egitea, horrek beste pertsonaren buruan erreakzio bat sor dezakeelako eta balio dezakeelako abiada bizian dabilen buru hori galgatzeko; lapikoa sutatik erretiratzea moduko zerbait da galdera egitea.

"Zentzugabea da pentsatzea suizidioaz publikoki hitz egiteak ezbaian dagoen pertsona bere buruaz beste egitera bultza dezakeela"

Galdera eginda sufrimendua aitortzen dugula esaten ari gaitzaizkiolako beharbada?

Bai, sufrimendua objetibizatzea deitzen diogu horri. Esaten dioguna da ez garela harritzen bizitzen ari denarekin suizidatzeko asmoa erabiltzea buruan, baina hor gauzkala ondoan, zulo horretatik irteten laguntzeko. Baina galdera egitea, jakina, beldurgarria ere irudituko zaio askori, ziurrenik lehen esandakoagatik: oso barneratua dugulako hitz egiteak bere asmoan indartzeko balioko duela. Gogora datorkit ideia beltzak zituela aitortu zidan lagun bat. Senide bat galdu zuen errepide istripuan eta aitortu zidan pentsatzen ari zela hara joan eta bertan suizidatzea. Hasi ginen, hala, bere planaz hitz egiten eta halako batean esan zidan: 'Izaskun, zure ahotik entzuten dudanean nik buruan darabilan hori beldurgarria egiten zait, baina nire buruan ez da hain beldurgarria'. 'Zergatik?', galdetu nion eta hasi ginen gertatzen ari zena objetibatzen eta konturatu zen ematen ari zitzaion dimentsioaz. Pertsona horren inguruan sare bat sortu behar dugu laguntzeko, eta hori ere galdetu behar zaio, nor nahi duen sare horretan egotea.

Eskola batean gertatutakoa da honakoa. Ikasle batek bere buruaz beste egin nahi zuela aitortu zion irakasleari, baina inori ez kontatzeko eskatu zion. Irakasleak ezin zuen hori ametitu. Guk beti esaten dugu bizitza konfidentzialtasunaren gainetik dagoela. Ziurrenik horren berri emanda ikasleak galduko du irakaslearenganako konfiantza, baina, bizi badira, denborarekin, hori konponduko da. Irakasleak bildu behar zuen indarra galdetzeko eta konbentzitzeko sare bat sortu behar zutela laguntzeko, eta galdetzeko nor egotea nahi zuen hor, gerta zitekeelako, adibidez, irakasleak aitari esan eta justu aita izatea ume horren sufrimenduaren arrazoia. Garrantzitsuena

da suizidatzeko erabakia atzeratzen saiatzea, denbora irabaztea, ikusi dezan zulo beltzenetik ere irten daitekeela. Sufrimendua ez da betiko, ezta arrazoiak heriotza bat denean ere. Budismoko bi geziez oroitu behar dugu.

Zer esan nahi duzu gezien kontu horrekin?

Lehenengo gezia jatorrizko mina da, gertaera bera. Bigarren gezia da nola kudeatzen dugun lehenengoa, bizi izan dugun sufrimenduaren aurrean sentitzen dugun pena, obsesio, malenkonia eta kezka erreakzioa. Lehenengo gezia ezin dugu saihestu, baina bigarrenak eragindako mina arindu dezakegu.

Gerta daiteke laguntzen saiatuta ere, ez lortzea suizidioa eragozteak, eta hor dator berriz ere kulpak.

Gertatzen da gure esku dagoen guztia eginda ere, suizidioa ez eragozteak. Bi plano ezberdinetan izaten gara pertsonak: batzuk bizitzatik gertuago eta besteak heriotzatik gertuago, eta beti ezin dugu heriotzetik hurbilago sentitzen denarekin konektatu. Norbere burua hiltzea erabakitzeko arrazoiak asko eta askotarikoak izaten dira beti. Pertsona bat ez da suizidatzen banandu delako edo lana galdu duelako. Horiek pertsonak gainezka egiteko behar duen azkeneko tantak izan ohi dira, eta garbi izan behar dugu ingurukoon babesa sentitzeak eragina izan dezakeela pertsona horren azken erabakian, baina babesa izatea ez dela determinantea. Ikusi da nazio mailako prebentzio planak indarrean dituzten herrialdeetan suizidio kasu gutxiago ematen direla, baina hala ere, beti egongo dira kasuak, suizidioa sufrimenduari lotutako aukera bat delako eta sufrimendua aldiro agertuko zaigulako. Eta hori ulertu eta onartu behar dugu.

Suizidio kasu batean beti dago halako arrazoi bat topatu nahi bat ere...

Normala da, suizidiod z hiltzea dramatikoak delako, eta arriskua ikusita ere, beti harrapatzen gaituelako ezustean. Halakoetan zergatiaz galdezka hasten gara: Zergatik ez nuen ikusi? Zergatik ez naiz gai izan eragozteko? Zer nintzen ni berarentzat halako sufrimendua eragitea erabakitzeko berak? Dolu prozesu baten parte dira galdera horiek, gure buruarekin eta hurkoarekin adiskidetzeko egin beharrekoak, askotan haserretu ere egiten garelako suizidatzea erabaki duenarekin. Baina iristen da momentu

"Garbi izan behar dugu ingurukoen babesa sentitzeak eragina izan dezakeela suizidatu asmo duenarengan, baina babes hori izatea ez dela determinantea"

bat hasten garena ulertzen zer zaila behar zuen izan hil den pertsona horren azalean egotea, eta beste irtenbide batzuk egon bazirela jakin arren, ulertzen hasten gara pertsona haren buruan ez zela beste irtenbiderik momentuan. Eta sufritzen dugu fase horretan ere, maite genuelako, eta ingurukoen begiradagatik ere bai. Gizarteak beste heriotza kasuetan ez bezala epaitzen du familia, bai eta suizidatu den pertsona ere, eta hori da hemen denok aldatu behar duguna, horrek min handia egiten duelako. Suizidatu den baten etxekoei sekula ez zaie galdetu behar zergatik.

Suizidatzeko ahalegin antzuak ere izaten dira. Nola bizi da bat horrekin?

Lotsa handiz bizi izaten dute gertatutakoa. Horregatik esaten dugu saiakera bat egotea arrisku faktore bat dela suizidioa gertatzeko, behin saiatu dena ahalegindu daitekeelako berriro ere, baina azpimarratu nahi nuke datuek erakusten dutela gehienetan ez dela hori ematen. Bere buruaz beste egiten saiatu eta lortu ez duenak, hori bai, batetik, kudeatu behar du 'porrota', eta bestetik, lotsa eta gizartearen begirada ankerra. Nolanahi ere, esan nahi nuke bizitzarekin lotzea lortzen duten pertsona horiek oso lagungarri zaizkiola gizarteari.

Laguntza eskatzeko indarra bildu dutenek sarri salatu dute baliabideak eskas direla osasungintzan.

Bai. Ezinbestekoa da diru gehiago inbertitzea buruko osasunean. Askok kostatzen da lehen arretatik psikologoaren edo psikiatraren kontsultara bideratzea, itxaron zerrendak luzeak dira, profesionalak falta dira... Ezinbestekoa da borondate politiko hori, baina horrez gain psikoedukazioa landu behar dugu etxetan, eskoletan eta lagun taldeetan, eta hitz egiteko eta elkarri laguntzeko espazioak sortu.

Hainbat musika ekitaldi antolatu dituzte, Santa Zezilia Egunaren harira

Santa Zezilia Eguna izango da azaroaren 22an, eta horren harira, hainbat musika ekitaldi egingo dituzte datorren astean Elgoibarren eta Mendaron. Azaroaren 20an eta 21ean Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalek kontzertua emango dute. Musika eskolako auditoriumean izango dira, 19:30ean. Hilaren 23an, bestalde, Betisua txarangak eta musika eskolako trikitilariak kalejira egingo dute, 17:30etik aurrera.

Ikastolan ere, Santa Zezilia

Elgoibar Ikastolan ere ospatuko dute Santa Zezilia Eguna. Azaroaren 22an bertan irtengo dira Ikastolako ikasleak kalera, eta musikaz jantziko dute Maalako parkea. 10:00etan hasiko da emanaldia, HH5eko eta LH6ko ikasleen dantzaldiarekin. *Aldapeko* abestia kantatuko dute, eta Bizitza kantu bat abestia dantzatuko dute. Hortik aurrera mailaka irtengo dira oholtzara. LH1ekoek Kantu Koloreren *Kask-kask* kantua dantzatuko dute, LH2koek Bulegoren *Kantu bat*, eta gero, *Esna Zaitetz* kanta eskainiko dute bi mailetako ikasleek batera. 11:00ak aldera irtengo dira oholtzara LH3koak batukada jotzera, eta segidan, Neomak taldearen *Ilargi berriak* kanta dantzatuko dute LH4koek. Azkenik, LH5ekoek ETS eta Suneren *Gu geu garena* abestia dantzatuko dute.



Mendaron ere bai

Mendaron, domekan hasiko dituzte musika ekitaldiak: Ameikutz musika eskolako txistulari taldeak kalejira egingo du 11:00etan, musika eskolatik hasi eta herrian zehar. Astelehenean, bestalde, trikitilariak irtengo dira euskal dantzako dantzariekin, 18:00etan.

Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak ere modu berezian ospatuko du musikarien eguna. Azaroaren 25ean kalejira irtengo dira 11:00etan, eta gero, kontzertua emango dute Herriko Antzokian, 13:00etan. Kontzertu berezia izango da, izan ere, Serafin Zubiri abeslari nafarrak hartuko du parte, zenbait kanta abestuz.

'Itsatsita' musikala ikusteko aukera izango da gaur Elgoibarko Herriko Antzokian

Itsatsita musikala komikoa antzeztuko dute gaur Elgoibarko Herriko Antzokian, 19:00etan hasita. Patxi Barcok zuzendutako lana da, eta Maria Redondo, Xanti Korkostegi, Ainhoa Aierbe eta Paul San Martin dira antzezleak.

Diskoteka baten iluntasun zaratatsu eta beroan elkar erakarriko dira bi gazte, eta diskotekako komunean sexu harremanak izaten hasten direnean katiatuta geldituko dira, medikuek *penis captivu* deitzen dutena



gertatuta. Ospitalean amaituko dute hori dela eta. Sarrerak salgai daude Herrikoantzokia.eus webgunean.

Elgoibarko dantza sistemaz arituko da bihar Mikel Sarriegi dantzari eta ikertzailea

Zer dantzaten da Elgoibarren? Elgoibarko dantza-sistemaren bilakera Gipuzkoako dantza-eskolaren testuinguruan izenburuko mintegia antolatu dute Dantzan elkarteak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak biharko. Beasaingo Aurtzaka dantza taldeko dantzari, zuzendari eta ikertzailea den Mikel Sarriegi gonbidatu dute horretarako. Sarriegik gai horren inguruko ikerketa egina dauka eta horixe aurkeztera dator Elgoibarrera. Gipuzkoako dantza-eskolaren testuinguruan, Elgoibarko dantza sistemaren bilakaera aztertuko du, Haritzeko hainbat dantzariren laguntzarekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 10:00etan hasita.



Hainbat ekimen antolatu ditu Gotzon Garate Liburutegiak azarorako

Gotzon Garate Elgoibarko Udal Liburutegiak azarorako programazioa aurkeztu du. Aste honetan hasi dituzte ekitaldiak, eta datorrenean izango dute segida. Hilaren 21era bitartean LH4 eta LH5eko eskola-umeak pasatuko dira liburutegitik, eskola-orduetan, propio haientzat diseinatutako jolasetan aritzeko. Azaroaren 21erako (martitzena), berriz, Annie Funny narratzailea gonbidatu dute ingelesez ipuinak kontatzera. LH1etik LH3ra arteko umeei zuzenduta dago, baina txandak osatuko dituzte. LH1ekoentzako saioa 17:00etan hasiko da, eta LH2 eta LH3koentzako, 17:30ean.

Azaroaren 22an, helduentzako ipuin kontaketa saioa antolatu dute, 19:00retarako. Dorleta Kortazarrek emango du, *80 amandre* izenburupean. Azaroaren 29rako, berriz, Arantxa Urretabizkaia gonbidatu dute Elgoibarrera. Euskadi Saria jaso du aurten Urretabizkaia *Azken Etxea* liburuarekin, eta hain justu ere liburu horrexen inguruan jardungo da Elgoibarren. Entzun nahiko luketenei liburutegian izena emateko eskatu diete, lekua gordetzeko. 19:00etan izango da.

DJ Mari elgoibartarra Remember Paradise jaialdian aritu da musika jartzen BECen



6.000 lagun inguru bildu dituen Remember Paradise jaialdian aritu zen zapatuan musika jartzen Mari DJ elgoibartarra, Barakaldoko BECen. Remember jaialdiaren seigarren urteurreneko jaialdia izan zen zapatukoa eta 6.000 lagunuen aurrean aritu zen Mari DJa. Bere garaian Guass diskotekan eta gerora inguruotako beste lokal askotan jardun da musika jartzen.



Jaiotza lehiaketa antolatu dute Elgoibarko San Bartolome parrokiok

Jaiotzen lehiaketa antolatu du aurten ere Elgoibarko San Bartolome parrokiak. Elgoibarko familiek eta lagun taldeek parte hartu dezakete bertan, gehienez sei lagun arteko taldeek, eta partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Jaiotzak Jesusen jaiotza irudikatzen duten figurak izan behar ditu, baina nahi den materiala erabili ahal izango da egiteko. Gehienez, hori bai, 75x40 zentimetroko neurria izan beharko du jaiotzak.

Jaiotzak Aita Agirre kulturgunean aurkeztu beharko dira abenduaren 17an, 11:00etatik 12:30era, baina parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute abenduaren 10erako elgoibarkojaiotzak@gmail.com helbidera idatzita. Mezuan, parte-hartzaileen izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki bat zehaztu beharko dira. Parte hartu duten guztiekin erakusketa jarriko dute gero Aita Agirre kulturgunean, abenduaren 21etik 24ra eta 26tik 30era. Lanak jasotzeko eguna urtarrilaren 8a izango da.

Inesa Gaxen umeentzako liburu ilustratua aurkeztu du Olaia Irigoien elgoibartarrak



Olaia Irigoien elgoibartarrak *Inesa Gaxen* liburu ilustratuaren euskarazko bertsioa aurkeztu zuen zapatuan, Lilan. Adapta argitaletxearekin kaleratu du liburu. Urte hasieran gaztelaniaz argitaratu zuen, eta orain, euskarazko bertsioa eman du argitara. Aurkezpen ekitaldian Uxue Alberdi idazle eta kazetaria izan zuen lagun Irigoienek. Inesa Gaxenek lotu ditu bi idazleak, izan ere, Uxue Alberdik idatzitako letrekin kanta bat sortu zuen Eñaut Elorrietak, eta kanta hori izan zen liburuaren abiapuntua. 6-8 urteko umeentzako liburu da, eta Inesa Gaxenen bizitza jasotzen du. Inesa Gaxen Nafarroan Beherean jaio zen XVI. mendean eta sorgintzat

hartu zuten. Bordeleko parlamentuan epaitu zuten 18 urte zituela; baina, frogarik ez zuten, libre utzi zuten. Bidasoaz bestaldera igaro, eta Irunen bizi izan zen hogeitaz, eta gero beste zazpi urtez Hondarribian. 1611. urtean, haur batzuek sorgina zela esan eta preso hartu zuten berriro, baina hasieratik bukaeraraino ukatu zituen Inesa Gaxenek salaketa guztiak, era guztietako presio eta torturak jasan behar izan bazituen ere. Sorgin ehizaz eta emakumeek historian zehar izandako jazarpenaz jardun zuten besteak beste ekitaldian. Liburu honekin batera, Sancho Panzaren abenturei buruzko beste bat ere kaleratu berri du Irigoienek, momentuz gaztelaniaz. Pitxintxun daude salgai.

Elgoibarren izan ostean, bihar Mendaron izango dira Pollo Rosakoak 'Emakume abeslariak' kontzertu didaktikoarekin

Joan zen domekan Elgoibarren izan ziren Pollo Rosa antzerki konpainiakoak, Aita Agirre Kultur Kafean, eta bihar, Mendaron izango dira, lan berarekin: *Emakume abeslariak*. Jugatx Mirasolainek, 2010az gerotik Donostiako Orfeoiko abeslaria denak, eta Iñaki Santos piano jotzaileak osatzen dute taldea, eta hainbat musikari emakumezkoren kantuak interpretatuko dituzte oholtzan. Baina ez da kontzertu soila izango. Izan ere, abesteaz gainera, interpretatuko dituzten abeslarien obrari, bizitzari eta garaiari ere



erreparatuko diote. Musika munduan arrakasta lortu duten emakumeek egin behar izan duten bide zailaren eta gainditu behar izan dituzten zailtasunen inguruan gogoeta egiteko lagungarri gerta daiteke *Emakume abeslariak* lana. Mendaroko kontzertua San Agustin kulturgunean izango da, 18:00etan hasita, debalde.

Elgoibarko eta Mendaroko lasterkariak ere izan dira Behobian



25.889 lagunek hartu zuten parte domekan Behobia-Donostia lasterketan, eta horietatik 25.636 antxixikari iritsi ziren helmugara, tartean 53 elgoibartar eta zortzi mendaroar. Elgoibarko eta Mendaroko ordezkarien artean Igor Torres Castilla izan zen azkarrena 01:11:27ko denborarekin, (iaz baino hamar segundu gehiago). 2019an lortu zuen Torresek bere markarik onena: 1:10:05. Denbora hori ontzea zaila izango dela uste du, adinean gora doalako, baina lehen eguneko ilusioarekin jarraitzen duela aitortu du eta pozik etxeratu zela domekan, dena emanda. Emakumezkoetan Pilar Arriolak egin zuen denborarik onena: 01:43:37. Aurtengoan sekula baino emakume gehiagok hartu dute parte, 7.482 emakumek, parte-hartzaileen %29. Elgoibartik eta Mendarotik joandakoen artean apalagoa izan da emakumeen parte-hartzearen batez bestekoa: %11,6 izan dira emakumeak, zazpi orotara.

Igor Elizburu Astigarragak, bestalde, hand-bike modalitatean hartu zuen parte eta 56:51ko denboran osatu zuen ibilbidea, ordubetetik behera egiteko bere buruari jarri zion erronka betez. Proba honetan duen marka pertsonala hiru minutuan ondu zuen Elizburuk.

Asier Arriola mendaroarrak patinetan egin zuen lasterketa, eta bere kategoriako 41. postuan sailkatu zen, 56:29ko denborarekin. Oihana Martinez elgoibartarra ere patinekin abiatu zen, baina ez zuen lasterketa amaitu.

Elgoibartarren sailkapena

136	Igor Torres Castilla.....	01:11:27
381	Roberto Gonzalez Fernandez.....	01:15:23
589	Inigo Iturbe Ortiz De Zarate	01:17:42
776	Gorka Cebrian Arregi.....	01:19:11
1.260	Jon Dominguez Cid.....	01:22:07
1.261	Markel Amutxastegi Yarza.....	01:22:07
1.441	Joseba Lopez Bruno.....	01:23:10
1.468	Ion Irazabal Garciandia.....	01:23:17
1.602	Martin Dominguez Lopez.....	01:23:53
1.772	Miguel Montes Perez.....	01:24:46
1.835	Mikel Armendia Bereziartua.....	01:25:07
2.084	Aitor Aranzamendi Iriondo.....	01:26:18
2.677	Jon Romar Iriarte.....	01:28:35
2.703	Jose Antonio Ruiz Del Rey.....	01:28:41
2.902	Oier Irazabal Garciandia.....	01:29:14
3.301	Iker Hernandez Acuña.....	01:30:22
5.413	Ander Aranbarri Rumayor.....	01:36:03
5.436	Gurutz Quintano Aguirrezabal.....	01:36:06
6.012	Asier Izagirre Egaña.....	01:37:25
6.273	Borja Fernandez Lopez	01:37:57
6.422	Francisco Javier Boo Fernandez ..	01:38:14
6.906	Sergio Martinez Roman.....	01:39:08
7.792	Aitor Arruabarrena Gurrutxaga....	01:40:44
7.797	Unai Usatorre Juaristi.....	01:40:45
9.045	Iñigo Aduriz Lekuona.....	01:43:09
9.275	Pilar Arriola Diez	01:43:37
9.515	Ander Martin Sanchez.....	01:44:04
10.266	Asier Rodriguez Blanco.....	01:45:23
10.837	Joseba Sagasta Anton.....	01:46:19
10.960	Nora Armendia Zabala.....	01:46:35
12.338	Javier Hernando Albert.....	01:49:00
12.969	Xabier Arriola Leiaristi.....	01:50:06
13.213	Miguel Angel Montes Crespo.....	01:50:34
13.262	Amaia Jauregi Barrutia.....	01:50:38
13.338	Eider Iriondo Ansola.....	01:50:44
13.560	Oscar Rey Alonso.....	01:51:09
14.362	Nagore Rodriguez Arriola.....	01:52:37
16.569	Eneko Arrizabalaga Garate.....	01:56:49
17.782	Julen Conde Cestafe.....	01:59:09
17.925	Maitane Tejero San Martin.....	01:59:28
17.929	Adrian Charles Oñederra.....	01:59:29
17.944	Jon Peli Uriguen Ansola.....	01:59:30
17.961	Asier Cordon Blazquez.....	01:59:32
17.966	Miren Lahoz Idarraga.....	01:59:33
17.970	Patxi Loiola Urain.....	01:59:33
18.708	Aitor Kortazar Astigarraga.....	02:01:19
18.804	Ander Soraluze Juaristi.....	02:01:33
19.178	Alexander Bilbao Aldekoa-Otalora ..	02:02:37
20.035	Samuel Ruiz De Lorenzo.....	02:05:06
23.944	Maialen Alonso Pescador.....	02:28:01
23.947	Gorka Mugertza Garcia.....	02:28:03
24.017	Beñat Konde Untzilla.....	02:29:29
24.292	Iñigo Mugertza Osoro.....	02:37:04

Hand bikean

10	Igor Alizburu Astigarraga.....	00:56:51
----	--------------------------------	----------

Mendaroarren sailkapena

1.079	Patxi Salegi Martija.....	01:21:09
1.219	Miguel Angel Urkiza Anakabe.....	01:21:52
3.095	Israel Soto Calderon.....	01:29:47
7.690	David Garcia Fernandez.....	01:40:34
8.004	Igor Ezenarro Arriola.....	01:41:07
8.024	Borja Rodriguez Barreras.....	01:41:09
9.177	Jurdan Ezenarro Arriola.....	01:43:25

Patinetan

41	Asier Arriola Azpiazu.....	00:56:29
----	----------------------------	----------

Bihar jokatuko dute Karakateko Igoera

Bihar jokatuko dute Karakateko Igoera. 11:00etako kanpaiak jotzeaz batera irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazako frontoitik, eta bakoitzak nahi duen bidetik, Karakate puntaraino igoko dira. Lau kilometroko ibilbidean 700 metro inguruko gorako desnibel positiboa gainditu beharko dute parte-hartzaileek. Lehenengo gizonezkoak eta emakumezkoak, eta lehenengo emakume zein gizonezko elgoibartarrek izango dute saria, eta baita aurpegi onenarekin iristen den korrikalariak ere. Horrez gain, sari berezi bat banatuko dute aurten: Morkaikokoek denborari begira saltaka egiten ez duten saltakariak ere Karakateko Igoeran parte hartzera animatu nahi dituzte, eta Astigarraga kirol dendaren laguntzarekin, lehen sailkatuaren denbora bikoizten duen parte-hartzailea ere sarituko



dute aurten. "Denborara gehien hurbiltzen dena, pasatu gabe", zehaztu dute.

Urregarain izan dira Elgoibarko eskola-umeak Morkaikorekin



Denboraldiko bigarren mendi irteera egin zuten Elgoibarko familiek domekan, Morkaikok antolatuta. Mintxetan batu ziren 20 bat ume eta beste horrenbeste nagusi, eta Urregarai mendirako bidea hartu zuten. Lekoitzeko lepoan ekin zioten bideari. Han pista hartu eta Santa Eufemiako zelaietara heldu ziren. Ondoren,

Urregaraiko tontorrera igotzeko dauden 223 eskailerak igo eta mendi gailurrera iritsi ziren.

Aurreko egunetan euria egin bazuen ere, domeka ateri esnatu zen, eta mendirako eguraldi aproposa egin zuela azaldu dute antolatzailaiek. Hurrengo irteera abenduaren 3an egingo dute: Elgoibar-Soraluze.

Igamo Packaing taldean lehiatuko da Aroa Saez txirrindulari elgoibartarra

Emakumeen txirrindularitzari bultzada emateko asmoz, bailarako emakume txirrindulariak talde bakar batean batu nahi dituzte, Bergarako Lokatza Ziklismo Eskola barruko Igamo Packaing taldean, hain zuzen ere. Orain arte Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolan hasitako Aroa Saez izango da taldekideetako bat. Dagoeneko hasiak dira 2024ko martxoan hasiko den denboraldi berrirako prestatzen: Aroa Saez kadete kategoriako bigarren urtean lehiatuko da aurtan.



Gipuzkoako pala finalerako sailkatzeko partida erabakigarria jokatuko dute gaur Lizarralde eta Arrizabalagak

Gipuzkoako Pala Txapelketan lehiatzen ari dira Lagunak Pilota Eskolako Gorka Lizarralde eta Kepa Arrizabalaga, eta finalerako txartela eskuratzeko partida jokatuko dute gaur, Elgoibar Ikastolako frontoian. Joan zen astean jokatu zuten finalurrekoaren joaneko partida Donostiako Loiolatarrak taldearen kontra, eta 20-25 irabazi zuten elgoibartarrek. Salaberria eta Aroztegik osatzen dute Donostiako bikotea, eta gaur itzulerako norgehiagoka jokatuko dute Elgoibarren. 19:00etan hasiko da partida.



Drangnag-ri mendian zabalduetako bide berria izango dute hizpide eguaztenean, Morkaikoren udazkeneko mendi emanaldien barruan

Morkaikoren udazkeneko mendi emanaldiak iritsi dira azkenera. Asteazkenean izango da azken jardunaldia, eta bertan, Iñaki Arakistainek bere sokalagunekin (Alberto Fernandez eta Mikel Zabalza) Nepaleko Drangnag-ri mendian bide berri bat irekitzean bizitakoak kontatuko ditu. Horrez gain, *Taghia*, eguzkiz blai proiektuaren berri ere emango du. Proiektuaren helburua Taghianen eguzki panelak jartzea da, hango bizilagunen beharrak asetzeko. 19:00etan izango da hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



Denboraldiaurreko egonaldia egin du Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeak Elgoibarren



Euskaltel-Euskadi gizonzkoen txirrindulari taldeari ongietorria egin zion martitzenean Elgoibarko Udalak, denboraldiaurreko egonaldia Elgoibarren egiten ari direla baliatuta. Ongietorrian izan ziren, baita ere, Lagun Taldea txirrindulari taldeko arduradunak eta txirrindulari gazteak. Joan Bou brasildarra eta Victor de la Parte kolonbiarra izan ezik, gainerako txirrindulari guztiak egon dira asteen herrian. Udaletxean, Maialen Gurrutxaga alkateak esker hitzak izan zituen haientzat guztientzat eta zorte ona opatu zien elgoibartarren izenean denboraldi berrirako. Era berean, oroigarri bat ere oparitu zien taldekideei. Pello Olaberria eta Jorge Azanza taldeko arduradunek jaso

zuten oroigarria, eta taldearen mailota oparitu zioten trukean alkateari. Udaletxeko pleno aretoan egin zieten harrera, eta hantxe izan ziren Lagun Taldea txirrindulari taldeko kideak ere. Udaletxera igo aurretik, taldeko argazkia atera zuten Kalegoen plazan, eta ekitaldi ondorenean, txirrindulari eskolako gaztetxoek arkuak egin zieten udaletxeko arkupeetan, gurpilak eskuan hartuta. Elgoibarko Lagun Taldekoek ginkana ere antolatu zuten plazan. Eguaztenean, berriz, Sallobentera irteera egin zuten herriko txirrindulariekin batera, eta gaur, Euskaltel taldeko txirrindulariak Herri Eskolan eta Elgoibar Ikastolan izatekoak dira, LH3 eta LH4ko ikasleekin hitz egiteko.



Euskal Herriko Hiru Txirlo txapelketako sailkapen nagusiko lehen postuan iritsi da Angel Ibarluzea azken jardunaldira

Bihar jokatu dute Euskal Herriko Hiru Txirlo txapelketako azken jardunaldia Lasturren, eta San Migel taldeko bolariak sailkapen ia guztietako lehen postuetan ailegatu dira azken tiraldira. Sailkapen nagusian Angel Ibarluzea dago lider, 22 txirlorekin; emakumezkoetan Aitziber Olaizola da nagusi 13 txirlorekin; bikoteka, Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea daude lehen postuan eta taldeka, San Migel A taldea.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka eta asteburuetan. Beharrezkoak diren titulazioak dauzkat. **631 020 169**

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. **631 229 408**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **674 535 912**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. **604 910 708**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan, asteburuetan edo orduka jarduteko prest. **644 943 297**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **631 489 128**

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan edo arratsaldeetan. **632 065 398**

Adinekoak zaintzeko prest nago, egunez zein gauez, orduka. **605 402 030**

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulua daukat. **685 724 861**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **643 427 770**

Lan bila nabil. Enpresetan garbiketa lanak egin ahal izateko titulua daukat. **624 841 714**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, etxeko langile moduan edo gauez. Esperientzia handia eta erizain laguntzaile titulua ditut. **643 505 662**

Adineko emakume bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Esperientzia izatea ezinbestekoa. **637 258 819**

Eskaintza

Mendekotasun egoeran dagoen pertsona bat zaintzeko langilea behar dugu. **615 891 218**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€ .

Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).

Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure atariko lehendakari kargua betetzen zuen pertsonak bere etxebizitza saldu du, eta orain, kargu horri buruzko zalantzak ditugu. Jabe berriak kargu hori betetzeko aukera aztertu dugu, baina jabeak uko egin dio funtzio hori betetzeari. Jabe batzuek proposatu dute lehendakariordea hartu dezala orain presidente kargua, eta beste jabe batzuek, aldiz, etxebizitza saldu duen jabeak funtzio hori betetzen jarraitu dezala proposatu dute, kargua berritu arte.</p> <p>Jabekideetako batek nahitaez hartu behar du presidente-kargua. Bere agintaldian zehar etxea saltzen badu, jabe izaera galtzeak berarekin dakar lehendakari kargua ere galtzea. Beraz, etxebizitza saldu duen jabeak ezingo du presidente kargua betetzen jarraitu, berak nahi izanda ere, kargu hori hartzeko ezinbesteko baldintza jabe izatea delako. Jabe berria ere ezin da behartu erosi duen etxebizitzaren saltzaileak zeukan funtzioa ordezkatzera, jabe berria ez delako legez ezarritako moduan izendatu. Azkenik, lehendakari kargua lehendakariordeari ematea proposatu duzue, baina horrek ez du esan nahi lehendakariordeak lehendakariak zituen edo garatzen aritu den ahalmen berberak dituenik. Beraz, beharrezkoa izango da Ezohiko Batzarrerako deialdia egitea, beste lehendakari bat hautatzeko, eta jabe berriak ere izango du lehendakari berria aukeratzeko aukera.</p> <p>Gomendioa: Horrelako egoeretan legedia bete beharko da, egindako deialdiak eta hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezten.</p> <p>GOXOR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Peio**, bihar 6 urte handi beteko dituzulako. Muxu potolo bat, familiako eta lagunen partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Haizea**, 4 urte bete dituzulako. Muxu handi bat, guztion partez. Izugarri maite zaitugu!



Zorionak, **Danel**, artista! gaur 8 urte bete dituzu, mutil handi! Muxu handi bat, etxeko partez.



Zorionak, **Beñat**, hilaren 14an 5 urte bete zenituelako. Patxo potolo bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Mara**, 7 urte potolo bete dituzulako! Muxuak, bereziki, Laiaren eta osabaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

EUSKARA ERREFORTZUAK EMATEKO HEZITZAILEAK BEHAR DITUGU (eguerdi eta arratsaldeetan)

ESKATZEN DA:

- Ahozko euskara maila handia izatea.
- 16 urtetik gorakoa izatea

ESKAINTZEN DA:

- Trebatzeko aukera

**Lanaldia zehaztu gabe dago oraindik*

Interesdunek lan poltsan eman behar dute izena:

labur.eus/eilanpoltsa



EXPRESS ESKAINTZAK!

3KFE563WI COMBI BALAY HOZKAILUA

599 €



- Hozkailuak: 237 litroko edukiera
- Izozkailuak: 89 litroko edukiera
- Estrafresch kaxoia
- Beirazko erretiluak
- Extracold 0 graduko kaxoia
- Barneko led argiztapena
- Alarma optiko eta akustikoa
- Ez frost.
- 326 Litroko edukiera.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

17 BARIKUA

17:00 Skate parkearen 5. urteurreneko jaia. Basarten, skate parkean.

17:00-20:30 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan. Ordua hartzeko: 634 073 498.

19:00 Antzerki musikala: 'Itsatsita'. Herriko Antzokian.

19:00 - 00:00 Kontzertuak. Erritmoaren ibilbidea. Aizu! ostalarien elkarteak antolatuta, musika emanaldiak egongo dira herriko txoko desberdinetan.

18 ZAPATUA

11:00 Karakateko Igoera. Morkaikok antolatuta, Kalegoen plazatik.

10:00 Hitzaldia: 'Elgoibarko dantza tradizioa'. Haritz dantza taldeak antolatuta, Mikel Sarriegik emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

12:00-14:00 Autodefentsa tailerra, Mendaron, Azpilgoetako kultur etxean. Knockout klubeko Isabel Gomezek emango du ikastaroa.

16:00 Ahalduntze saioa: 'Nire ongizatea sendotzen'. Merlin Medinak emango du saioa, Lilan.

18:00 Kontzertua: 'Emakume abeslariak', Pollo Rosa taldearen eskutik. Mendaroko San Agustin kulturgunean. Doan.

19 DOMEKA

11:00 Txistularien kalejira Mendaron, musika eskolan hasita.

20 ASTELEHENA

18:00 Ameikutz musika eskolako trikitilarien eta dantza taldekoen emanldia, Mendaron.

19:30 Talde instrumentalen kontzertuak. Musika Eskolako auditoriumean.

21 MARTITZENA

17:00 Ipuin kontalaria, ingelesez. Annie Funny. Lehenengo saioa LH1ekoentzat, eta 17:30ean LH2 eta LH3koentzat.

18:30 Dokumentala: 'Sustraiak'. Lilan, euskaraz.

19:30 Talde instrumentalen kontzertuak. Musika Eskolako auditoriumean.

22 EGUAZTENA

10:00 Ikastolako ikasleen Santa Zezilia eguneko emanaldia. Maalako parkean.

19:00 Ipuin kontalaria, helduentzat. Dorleta Kortazarren '80 Amandre' kontakizuna. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

23 EGUENA

17:30 Betisua txarangaren eta musika eskolako trikitilarien kalejira. Kalegoen plazatik, Maalako parkera.

24 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Amaraun'. Lanku taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

19:00 Hitzaldia: 'Mujeres mayores y violencia de género'. Iratxe Herrero soziologo, gerontologo eta kriminologoak emango du, Mendaroko Udalbatza aretoan.

20:00 Elkarretaratzea. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan.

JUBILATUEN ASTEA

20 ASTELEHENA

17:00 Zine foruma, Loredi Salegik dinamizatuta. Jubilatuen Biltokian.

21 MARTITZENA

17:00 Txokolate jana eta Gabonetako 50 otarren zozketa. Jubilatuen Biltokian.

22 EGUAZTENA

17:00 Kafe tertulia: Elgoibarren girotutako filma, Pello Arrieta historialariarekin. Saioan zehar kafea eta pastak banatuko dituzte. Jubilatuen biltokian.

23 EGUENA

10:00 Ibilaldi gidatua, Inma Mugertza geologoarekin. Amaitzeko, luntxa, Jubilatuen Biltokian.

25 ZAPATUA

16:30 Sorpresa, Jubilatuen Biltokian.

26 DOMEKA

11:00 Meza berezia, hildako jubilatuen alde. San Bartolome parrokian. Segidan, salda eta pintxoak banatuko dituzte, elizaren ezkerreko aldeko arkupeetan.

Zinea Herriko Antzokian



'O corno'

18, zapatua:
19:00 / 22:15

19, domeka: 19:00
20, astelehena: 21:00

'Abentura erraldoia'

19, domeka: 16:30

'Las buenas compañías' (Ongarri)

22 eguaztena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

AZAROA

17 BARIKUA
18 ZAPATUA
19 DOMEKA
20 ASTELEHENA
21 MARTITZENA
22 EGUAZTENA
23 EGUENA
24 BARIKUA

Egunez

Arriola
■ Fernandez / ■ Barrenetxea
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea
■ Ibañez
Garitaonandia

2023 urte guztian, gaez: 22:00-09:00

**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052**

■ Fernandez:

Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Eta, Debabarrean zer?

Soraluze, azaroak 22, 19:30ean: 'Rory Gallagher, kemena eta leialtasuna'. Jon Gurrutxagarekin solasaldia

Jon Gurrutxaga kazetari eta musikari elgoibartarrak Rory Gallagher musikari irlandarrari buruzko liburua idatzi zuen 2006an. Blues Hotsak jaialdiaren barruan, liburuari buruzko solasaldia antolatu dute eta Jon Gurrutxagak berak gidatuko du saioa. Soraluzeko Herriko Antzokian izango da. Bertaratzen direnek liburua eskuratuko dute, doan.



I.URTEURRENA

Josefa Echevarria Eizaguirre

2022ko azaroaren 19an hil zen, 91 urte zituela. Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, domekan, azaroaren 19an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zareteneoi, alde zurretik eskerrak.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotzean
eramango zaitugu betiko.**

Bihotzez, zure familiak





Iñigo Lamelas



aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

federópticos
ikus

RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku edero
hortz klinika

RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Alta Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

Osasun gida

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 687 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 177/19

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Elbar
677 551 850

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

egin ttap!
kukulaisi

ONLINE LEHIAKETA!

7 egun, 7 galdere, 7 minututan
azaroaren 24tik 30era

denok batera ondo pasatu eta jokatzeko aukera!



haur (1h 4-6)
eta heldu.

izen ematea:

azaroaren 23ra arte
labur.eus/eginttap

final handia abenduarren 3an!



Danobatgroup-ek euskararen eguna ospatzeko lehiaketa kaleratu du aurten berriz ere

- **Euskaraz izango gara** leloa mantenduz, aurten ere Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta orokorrean gizarte osoari zuzenduta dago.
- Orain 23 urtetik hona ari da kooperatiba taldea bere egunerokotasuna euskaraz izateko lanean, eta Euskaraz izango gara leloak modu argian jasotzen du erabaki eta konpromiso hori.
- Indarrean dagoen 2021-2024 euskararen plan estrategikoko erronka eta helburuen markoan kokatzen da lehiaketa.

Danobatgroup industria taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, baliore erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan. Danobatgroup kooperatibaz gain, Danobat, Soraluze, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Danobatgroup-ek harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu. Baina Euskal Herriko lantegietako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du, eta horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Euskaraz izango gara da Danobatgroup-ek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko

lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan... Baina, egunerokotasunetik haratago, gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi dio Danobatgroup-ek. Ildo horretan, Danobatgroup-ek inguruan garatzen diren hainbat ekimenetan parte hartzen du, eta ekimen sozial horietako askoren sustatzailea ere bada. Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko aurten berriz ere lehiaketa antolatu du, Danobatgroup kooperatiba taldeak enpresak dituen herrietara zein gizarte osora zabaldua.

Lehiaketan parte hartzeko, ondorengo helbidean sartu behar da: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html>

Abenduaren 3ra arteko epea egongo da lehiaketan parte hartzeko, eta erantzun zuzena eman dutenen artean produktu ekologikoz betetako otarre bat zozkatuko da.

Euskaraz izango gara.

 **DANOBATGROUP**

**euskaraz
IZANGO
GARA**

HARTU PARTE DANOBATGROUP-EN
EUSKARAREN EGUNA
OSPATZEKO LEHIAKETAN!



Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdera eta irabazi produktu ekologikoz betetako otarre bat.

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html

PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNA

2023ko **abenduak 3**
00:00 h